

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Diaz de Mendibil Biteri

*Legutio, Araba
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Legutioko Nafarrateko Errotan, (1952an Santa Engraziako urtegi azpian geratu zena), jaio zen Inazio. Aita bertakoa zen eta ama Eskoriatzako Marin auzoko Ugarte baserrikoa. Aitak bi ezkontzatan hamabi seme-alaba izan zituen, Inazio denetan gazteena. Arabako Elosuko eskolan ibili zen zazpi urtetik hamahiru urte arte. 1961ean etorri zen Leintz Gatzagara eta bertako Rosario Aranarekin ezkondu zen. Bi seme izan dituzte. Araba eta Gipuzkoako herri ezberdinetan igeltsero lanetan jardun ondoren, Eskoriatzako Ederlan lantegian jardun zuen jubilatuta arte.

Zintak

LEG-020

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2000-03-05
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

LEG-061

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-09-22
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

LEG-062

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-09-22
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Gerraostean Nafarraten eskolarik ez; Elosuko eskolara

- **Erref:** LEG-061/003
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Nafarraten gerra ostean ez zegoen eskolarik, ziurrenik gerra garaian apurtuko zutelako. Eliza ere apurtu egin zen gerratean. Zazpi urterekin Elosuko eskolan hasi zen, baina neguan bakarrik joaten zen, uda partean baserrian lan egin behar izaten zuen eta. Nafarrateko errota zuen izena euren etxeak.

2. Urtegia egin zutenean euren baserria urpean

- **Erref:** LEG-061/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:08:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Euren baserria ur azpian geratu zen Santa Engrazia urtegia egin zutenean, eta Betolatzara joan ziren bizitzera. Hamar biztanle zituen orduan Betolatzak. Nafarrateko gainontzeko etxeak ez ziren urpean geratu, baina gaur egun pertsona bakarra biziko dela auzoan kontatzen du.

3. Bere adinetik gorakoek euskaraz Legution

- **Erref:** LEG-061/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:10:05

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Aita euskalduna zen. Legution bere adinetik gorakoek euskaraz egiten dutela dio. Gazteen berri ez omen daki, baina ikastolari esker euskaraz jakingo dutela behintzat uste du.

4. Legutioko auzoak

- **Erref:** LEG-061/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:12:09

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Nafarrate Legutioko auzoa da; Betolatza, aldiz, ez. Legutioko auzoak: Elosu, Nafarrate, Urrunaga, Urbina eta Goiaín. Urtegiak egin zirenean urpean geratu ziren Legutioko etxeak.

5. Errotetan debekua gerraostean

- **Erref:** LEG-061/011
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:15:37

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zuten baimenik errotan garia edo artoa ehotzeko; animalientzat pentsua bakarrik. Gorbeia azpiko Murua herrira joaten ziren garia ehotzera. Eurak etxean zuten errota eta estraperloan ere ehotzen zuten garia batzuetan, baina hare-harriarekin, pentsua ehotzeko harriarekin. Garia ehotzeko harria marmolezkoa izaten zen. Inguruko errotak.

6. Gerraostean Bilbo ingurutik estraperloko gari bila Legutiora

- **Erref:** LEG-061/012
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:15:37. **Bukatu:** 00:18:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean patata, babarruna, garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta deklaratu egin behar izaten zen bakoitzak zenbat genero hartzen zuen. Gari kiloa 40 zentimo inguru ordainduko zuten. Estraperloan, berriz, pezeta eta erdi inguruan ibiltzen zen, baina hamahiru pezetara ere iritsi omen zen. Bilbo inguruan gose handia zegoen eta bizikletan edo oinez etortzen ziren estraperloko elikagai bila. Batzuetan familia osoak etortzen ziren. Ahal zena jaten zuten: patata egosia esnearekin, masustak, hurrak...

7. Gerraostean familia bakoitzak txerri bat hazteko baimena

- **Erref:** LEG-061/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:00

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gerraostean elikagai asko falta ziren: olio, azukrea, txokolatea... Ganaduen seboa erabiltzen zen olioaren orde. Familia bakoitzak urtean txerri bat hazteko baimena izaten zuen, baina etxe batzuetan bi eta hiru ere hazten zituzten. Gero ukuiluan erretzen zen txerria, ezkutuan.</p>

8. Zikirioaren lastoa gari-azaoak lotzeko

- **Erref:** LEG-061/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:23:05

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Zikirioa ("centeno") ereiten zuten, eta haren lastoa gari-azaoak lotzeko erabiltzen zuten. Legutio inguruan gari-sail handiak egiten ziren eta lanerako abere asko behar izaten zituzten sail handienak zituztenek. Garia jotzeko azaoak askatzen zirenean, zikirioaren lastoak pilatu egiten ziren eta txerria erretzeko edo ganaduen azpiak egiteko erabiltzen ziren gero. Oso gogorra izaten zen zikirioaren lastoa.

9. Zikirioa ohol gainean jotzen zuten makilarekin

- **Erref:** LEG-061/017
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:24:50

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Zikirioa ("centeno") uztail hasierarako heltzen da. Ogia egiteko zikirioa nola jotzen zuten azaltzen du. Zikirioaren alea nolakoa zen.

10. Leintz Gatzagatik lantegietara oinez, bizikletaz edo trenean

- **Erref:** LEG-061/019
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

Leintz Gatzagan etxe asko erori egin omen dira, utzita. Bera bertara joan zenean bizitzera 500 biztanle zituen herriak. Baina ez zegoen garraiobiderik eta lantegietara oinez edo bizikletaz joaten zen jendea. Gero jendea behera (Eskoriatza-Aretxabaleta ingurura) joan zen bizitzera. Trena nondik pasatzen zen. Beraiek geralekua egin eta handik urtebetera kendu zuten trena.

11. Etxearen ateak zabalak, ganadua sartu eta ateratzeko

- **Erref:** LEG-061/025
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:36:08

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Bera Leintz Gatzagara bizitzera joan zenean etxe gehienetan behi bat edo bi izaten zen. Etxe azpian egoten zen ukuilua. Etxeetako ateak zabalak izaten ziren, ganadua barruan uztartzen zelako eta handik sartu eta ateratzen zelako. Behorra ere barruan kargatzen zen errotarako edo nonbaitera zama eramateko.

12. Leintz Gatzagako aldapetan eskuz egin behar lanak

- **Erref:** LEG-061/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:38:08

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Arabatik Leintz Gatzagara etorri zenean diferentzia sumatu zuen lan egiteko eran. Han dena laua zenez, ganaduekin eta errazago lan egin zitekeen. Leintz Gatzagan, berriz, idi-pare gutxi zegoen eta eskuz egin behar izaten zen lan gehiena, aldapa handiak daudelako. Araban, haritz handiak botatzen zirenean, idi-pare batek bakarrik ezin bazuen, bi edo hiru idi-pare jartzen ziren ilaran.</p>

13. Gerra garaian Bilbon; anaiak elkarren kontra borrokan

- **Erref:** LEG-061/027
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:40:48

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian Bilboraino eraman zituzten gorriek atzeraka, nazionalak zetoze eta. Urtebete egin zuten Bilbon. Etxera itzuli zirenean, ez zuten ezer: ez ganadu, ez behor, ez ahuntz... Bere anaia bat Afrikan zegoen soldadu eta honantz ekarri zuten gerra hasi zenean. Beste anaia bat gorriekin zebilen borrokan eta, beraz, elkarren kontra ibiltzea tokatu zitzaien.

14. Osaba gerratean desagertua

- **Erref:** LEG-061/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:40:48. **Bukatu:** 00:41:48

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra garaian osaba bat desagertu zitzaien, eta ez zuten gehiago haren berririk jakin.

15. Gerratik itzultzean etxea hutsik eta dirurik ez; gosea bakarrik

- **Erref:** LEG-061/029
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:43:35

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ama disgustuarekin hil omen zen gerraostean. Gerra aurretik etxea abereztuta eta ondo utzi eta etxera itzuli zirenean dena apurtuta eta ganadurik gabe aurkitu zuten. Bera txikia zen eta ez da asko gogoratzen, baina hasierako urtebete edo biau gosea pasa zutela dio. Ez zuten ezer, eta orduan inolako laguntzarik ere ez zegoen.

16. Legutioko frontea, gogorra

- **Erref:** LEG-061/030
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:45:08

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Teruelgoaren antzera, Legutioko frontea ere oso gogorra izan zela dio. Inguruko mendietatik gogor erasotu omen zuten herria. Elosu auzoa guztiz apurtuta utzi omen zuten. Eskola eta eliza ere apurtu egin zituzten, eta urte askoan egon ziren eliza gabe.

17. Urtebetez zentralako ardura izan zuen

- **Erref:** LEG-061/032
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:47:25

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bera Leintz Gatzagara joan zenean gatz lantegia martxan zegoen oraindik. Zentralako ardura eskaini zioten eta urtebetez lan egin zuen bertan. Udar ur gutxi etortzen zen errekan eta gauez bakarrik eman behar izaten zen argia.

18. Galdara martxan edukitzea gastu handia gatz lantegiarentzat

- **Erref:** LEG-061/034
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:48:43. **Bukatu:** 00:49:46

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gatz lantegiak

Laburpena:

Leintz Gatzagako gatz lantegian egunean gehienez 3.500 kilo gatz atera

zitekeela esan zuen peritu batek. Galdara erabiltzen zuten ura lehortzeko, eta gastu handia zela hura piztuta edukitzea dio. Galdararako egurra "karreteroek" ekartzen zuten menditik.

19. Leintz Gatzagako gatza, ona eta estimatua

- **Erref:** LEG-061/035
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:49:46. **Bukatu:** 00:51:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gatz lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Leintz Gatzagan oso gatz ona ateratzen omen zen, eta estimazio handia zuen. Txerriak kontserbatzeko erabiltzen omen zen asko. Aramaio ingurutik astoekin etortzen omen ziren gatzetara. Trenera ere eramaten zuten, "karreteroek" laguntzaz, handik Debagoienara banatzeko.</p>

20. Tren geltokia urruti eta autobusik ez

- **Erref:** LEG-061/036
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trenak ez zuen abantaila handirik eskaintzen Leintz Gatzagarentzat, hurbileneko tren geltokietara joateko ere bide luzea zutelako, eta kargak mugitzeko ez zelako eroso. Trena kendu zenean, "Bergaresa" autobus konpainiak autobus zerbitzua jarriko zuela agindu omen zuen, baina errepidea ez zen batere ona, eta gero ez zuen zerbitzurik jarri. Gaur egun badute autobus zerbitzua, baina gazteek nahiago dutela kotxea hartzea dio.

21. Eguraldi ona zenean negar egiten zuen emakumearen istorioa

- **Erref:** LEG-061/038
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:53:25. **Bukatu:** 00:54:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Kontakizun txiki bat kontatzen du. Emakume bat elurra eta euria zenean kantuan ibiltzen omen zen eta eguraldi ona zenean, berriz, negarrez. Horren arrazoia.

22. Mutikotako jolas eta entretenimenduak

- **Erref:** LEG-061/039
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:56:42

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Mutikotako jolasak: elkar harrapatzen, ezkutatzen... Pixka bat koskortutakoan bolotan jokatzen zuten. Dirua jokatu beharrean, gaseosa nork ordaindu jokatzen zuten. Txirikiletan ere ibiltzen ziren, batez ere neguan. Futbolean ere ibiltzen ziren, baina pilotan ez, frontoirik ez zuten eta.

23. Igandero erromeria Legution

- **Erref:** LEG-061/041
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:59:44

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Legution igandero musika egoten zen; udaran plazan, eta eguraldi txarra zenean alkatearen lonjan. Gasteiztik etortzen ziren musikariak. Herrian ere bazeuden soinujoleak, Maturana, soinu handikoa, eta Eginu anaiak, soinu txikia jotzen zutenak. Dantza soltea ez zuten asko egiten, gehienbat dantza lotua. Abadeak ez ziren erromerietara hurbiltzen. Guardia Zibil pareka egoten zen erromeria bukatzeko ordua zaintzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com